

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Serveo Servicios, SAU enpresak Michelin Gasteizkoren lantokian OVET 17 tailerrearen hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkarirena. Honen bidez ebazten da 2023-2024-2025-2026 Serveo Servicios, SAU OVE tailerra, Michelin Gasteizko lantegiarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01101200012023.

AURREKARIAK

2023ko urriaren 31n aurkeztu da, ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariek eta ordezkarik sozialak, 2023ko urriaren 24an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboak, lan-akordio kolektiboak eta berdintasun-planak erregistratzea eta gordailutzea.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen erregistroa eta enpresa Serveo Servicios, SAU OVE tailerra, Michelin Gasteizko lantegiaren hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 7a

Arabako lurralde ordezkarria

MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE

Serveo Servicios SAUren itun kolektiboa, enpresak Michelin Gasteizkoren lantokian OVET 17 tailerlean ematen dituen zerbitzu logistikoei atxikitako langileak dituen

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 24a.

1. Indarraldia eta iraupena

Itun kolektibo honen indarraldia 2023ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Bi aldeek salatutzat emango dute erabaki hau, iraungi baino hilabete lehenago.

Merkataritza-kontratua berritu edo luzatzeko unean, aldeetako batek ez badio beste aldeari idatziz dei egiten negoziatzeko, ituna urte naturalen arabera luzatuko da.

Espresuki itundu da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmena salatu eta itundutako iraupena amaitu ostean hitzarmenak indarrean jarraituko duela bi aldeek hura ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte.

2. Aplikazio-eremua

Gasteizko Michelin lantokiko eskulan zuzeneko langileei eragingo die, hau da, Gasteizko Michelin instalazioetan OVET-17 tailerlean zerbitzua emateko kontratua dutenei.

3. Berme pertsonala

Itun kolektibo honetan jasotako baldintza ekonomikoak, edo bestelakoak, gutxienez joko dira.

Ad personam osagarriak finkagarriak izango dira, eta ezin izango dira irentsi; hala mantenduko dira horiek kobratzen ari diren langileentzat, nahiz eta erreferentziatzeko hitzarmeneko soldata-taulen gainean igoerak hitzartu.

Borondatezko plusak ez du soldata-igoerarik jasango. Plus hori langile hasi berriei ere aplikatuko zaie.

4. Osotasunari atxikitzea

Akordio honen klausulek osotasun organiko eta zatiezina osatzen dute, eta ezin dira partzialki aplikatu.

5. Egutegia, lanaldia, ordutegia eta txandak

1. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, langileek bezeroaren egutegi bera izango dute urtero, hau da, lanaldi, ordutegi eta txanda berekin, Michelinek urtero Jarduera Logistikoko langileak atxikita dauden jardueretarako xedatzen duenaren arabera; horrela, bermatuta geratuko da jarduera bakoitzaren produkzio-beharrengatik sor daitekeen aldaketa, X aktibazio-egunak barne.

2. Urteko lanaldia bezeroak 5x8ko egutegian unean-unean ezarritakoa izango da. Urteko lanaldi arrunt efektiboa, jarduera logistikoko langileen oporrak barne, bezeroaren egutegiari lotuta egongo da; Michelin turismoko 5x8 egutegiari jarraituko zaio.

3. Michelinek 5x8 ez den beste egutegi bat aplikatzen badu, langileen legezko ordezkariekin negoziatuko da egutegi hori.

4. Ordutegia eta eguneko lanaldia zehazteko, hasiera eta amaiera egiaztatuko dira, gure enpresak bezeroaren bulegoen kanpoko aldean duen gailuaren bidez. Horretarako, nahitaezkoa izango da enpresaren gailuan fitxatzea.

5. Lanaldi horren barruan, langile guztiek 30 minutuko tarte izango dute ogitartekorako.

Era berean, PRECO akordioari eutsiko zaio (laneko gatazkak ebazteko borondatezko prozedu-
rei buruzko lanbidearteko akordioa) enpresarekin, 10 minutuko bi atsedenaldi ezarri lanaldiaren barruan, ogitartekoa gorabehera. Denbora hori lanaldi efektiboa izango da, betiere zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzen bada.

6. 5x8 txandako langileek 20 orduko poltsa izango dute. 20 orduko poltsa hori ez da urtekoa izango, bosturtekoa baizik. Beraz, bost urteko epean 20 orduak kontsumitzen ez badira, kontsumitzeke daudenak desagertu egingo dira, eta 20 orduko beste ziklo bat irekiko da beste bost urterako. Poltsa honako gai hauetarako bakarrik aktibatu ahal izango da, honela:

- 4 ordu lan-arriskuen prebentziorako.
- 8 ordu orga jasotzaileak erabiltzeko segurtasun-ikastaroa egiteko.
- 8 ordu segurtasun-ikastaroa eta bestelakoak egiteko.

6. Ekoizpen altuagatiko plusa

Michelinen bezeroak egutegitik kanpo lan egitea erabakitzen badu, ekoizpen altuagatik, 120 euroko konpentsazioa emango da, eguneko. Ordu horiek ez dira urteko lanaldiko ordu gisa zenbatuko, horien zioz 120 euroko plusa ordaintzen baita.

Ekoizpen altua jakinarazteko epea 7 egunekoa izango da, enpresa nagusiak horren berri ematen digunetik aurrera.

Aurreabisu-epe hori betetzen ez bada, 30 euroekin konpentsatuko da, betiere Serveo Servicios SAU erakundearen erantzukizuna ez bada.

7. Egutegiko X egunak

Bezeroaren 5x8 egutegiek X egunak izango dituzte bezeroaren irizpidearen arabera, egun horiek lan egin daitezenez edo ez, bezeroak egun horiek aktibatzen dituen kontuan hartuta.

X egunak ez daude sartuta urte bakoitzean hasieran hitzartutako urteko lanaldiaren barruan, eta, beraz, aktibatzen den X ordu bakoitzeko urteko lanaldia gaindituko dute.

X egunetan lan egitea nahitaezkoa izango da langilearentzat. Horrenbestez, eskatutako txandan lanera joan beharko du, bere lan-egutegian hala jasota baitago.

X egun bat aktibatuz gero, enpresak gutxienez 7 egun lehenago jakinarazi beharko dio langileari, bezeroak aktibazioaren berri duenetik zenbatzen hasita.

Aurreko paragrafoan ezarritako aurreabisua betetzen ez bada 25 euro gordinoko konpentsazio ekonomikoa ezarriko da, baina langilea ez da inola ere salbuetsiko bere lanpostura joatetik.

Aktibatutako eta lan egindako X egunetarako konpentsazio ekonomiko hau hitzartu da:

60 euro gordinoko plusa + egun bat.

8. Ekoizpen-desaktibazioak eta egutegi-egunak

X egunetan ez bezala, ekoizpen-desaktibazioak urteko egutegian hasieratik benetako lanegun gisa sartutako egunak dira, eta, edozein arrazoi dela-eta, bezeroak lanik gabeko egun bihurtzen ditu.

Ekoizpena desaktibatzeak ez du nahitaez inplikaturako lanpostu guztiak desaktibatzea eragiten. Horregatik, egoera horren aurrean aktibo mantentzen diren lanpostuak ezarriko ditu enpresak.

Ekoizpen-desaktibazioak, lanegun gutxiago direnez, egutegiko urteko benetako lanaldia murriztea dakar, eta, praktikan, langileak denbora hori berreskuratu behar du.

Ekoizpen-desaktibazioak lan gutxiago egitea dakarrenez, desaktibazioek egutegiko urteko benetako lanaldia murrizten dute, eta, beraz, lehenengo hiru desaktibazioak zenbatuko dira eta hurrengo biak ez dira kontuan hartuko (gehenez bost desaktibazio). Bosteko hurrengo zikloan, lehenengo bi desaktibazioak zenbatuko dira, eta ez dira hurrengo hirurak kontuan hartuko. Hamargarren desaktibaziotik aurrera, aurreko zikloak jarraian errepikatuko dira.

9. Banakako poltsa

Banakako poltsa bat ezarriko da, X aktibazioek eta produkzio-desaktibazioek sortutako egunek osatua.

Urte naturalaren amaieran, enpresako zuzendaritzak poltsaren emaitza jakinaraziko dio langile bakoitzari. Saldo hori negatiboa denean (kasu horretan, langileak enpresari egunak zor dizkio, lanaldi gutxiegi egiteagatik), ekoizpen-desaktibazioengatik dauden egunen saldo positiboarekin konpentsatuko da nahitaez. Beraz, horren emaitza hurrengo urtean poltsa individual gisa pasatuko da, egunak baliatzeko edo berreskuratzeko arauak aplikatuz.

Egun-poltsa osorik edo partzialki baliatu ahal izateko, eskatzaileak eskabide-orri bat bete beharko du 7 egun lehenago gutxienez. Eskabide-orri hori enpresak emango dio. Enpresak, gehienez ere 24 orduko epean, eskatzaileak eskaera aurkezten duenetik zenbatzen hasita, eskaerari baiezko edo ezezko erantzuna eman beharko dio. Enpresak ezezkoa eman ahalko du, bakar-bakarrik, txandan, baliatze-egunean eta taldean beste pertsona batzuekin bat egiten badu, aurreko paragrafoan adierazitako mugaketei dagokienez. Ezezko hori arrazoituko zaio eskatzaileari erantzunean.

Lanaldi horiek beti berreskuratuko dira bost egun lehenago jakinarazita.

10. 5x8 egutegiaren plusa

Ordainsaria berdina izango da 12 hilabeteetako bakoitzean; hau da, langileak benetako prestaziorik izan ez arren ordainduko da, oporren eta ordaindutako baimenen kasuan.

Ez da ordainduko sortutako ordainsaria kotizazio-oinarriaren mende dagoen kasuetan, ez eta aldi baterako ezintasunaren, gurasotasunaren eta abarren kasuetan ere. Kasu horietan, Errepideko salgaien garraioaren industriaren eta Arabako garraio agentzietarako sektorearentzako hitzarmen kolektiboren 34. artikuluan jasotakoa hartuko da kontuan, edo, halakorik ezean, hura ordeztzen duen hitzarmen kolektiboan jasotakoa, baldin eta haren xedapenak indarreko legedira egokitzen badira.

Plus hori ezin izango dute xurgatu, ezta konpentsatu ere, erreferentziako hitzarmenean (Arabako garraioa) xedatutako eguneratzeek.

5x8 txandako langileek 200 euro gordineko konpentsazioa jasoko dute hilean.

11. Gaueko lana

2023: ordu bakoitzak 1,70 euro gordineko balioa izango du.

2024: ordu bakoitzak 1,80 euro gordineko balioa izango du.

2025: ordu bakoitzak 1,85 euro gordineko balioa izango du.

2026: ordu bakoitzak 1,90 euro gordineko balioa izango du.

12. Antzinasuna

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, aldatu egingo da antzinasun-plusa ordaintzeko sistema; zenbateko finkoa ezarriko da zerbitzuan emandako bost urteko aldi bakoitzeko, eta jadanik ez da aplikatuko Salgaien errepideko garraioaren industriaren eta Arabako garraio-agentzien sektorearen hitzarmen kolektiboaren 22. artikuluko ordainketa-sistema.

2023: 55 euro gordin.

2024: 57 euro gordin.

2025: 59 euro gordin.

2026: 60 euro gordin.

13. Soldata-igoera

Soldata-igoerak gaur egun aplikatutako soldata-taulen gainean planteatzen dira.

2023. urteko soldata-igoera (ehuneko 5) = 1.046,81 euro.

2024. urteko soldata-igoera (ehuneko 4) = 879,32 euro.

2025. urteko soldata-igoera (ehuneko 3) = 685,87 euro.

2026. urteko soldata-igoera (ehuneko 2,5) = 588,70 euro.

KPIaren berrikuspena: KPIa urte hauetan itundutako ehuneko 14,5etik gorakoa bada, beste taula bat egingo da 2027an, izandako igoerarekin.

Segurtasun-plusa-bajadun istripuak; hileko segurtasun-plus indibidual bat ezartzen da langile bakoitzarentzat, akordioa indarrean dagoen 4 urteetan, akordio honetan indarrean dauden soldaten ehuneko 0,25ekoa; hileror ordainduko da. Hilabete bakoitzean baja eragin duen lan-istripurik izan ez duen enpresako langileak jasoko du.

Eragindako langile gehiago daudenean bakarrik ez zaio ordainduko plusa istripuaren eragileari.

14. Lizentziak eta baimenak

Ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege-dekretuan araututako baimenetatik haratago (erreferentzia: BOE-A-2023-15135), honako baimen hauek arautzen dira itun kolektibo honetan:

– Ezkontidearen edo seme-alaben heriotzogatik, 6 egun baliodun.

– Gurasoen, neba-arreben, aitona-amonen eta biloben heriotzogatik, 3 egun baliodun.

– 3 egun baliodun, seme-alabaren jaiotzogatik nahiz odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko lehen mailarainoko senideen gaixotasun larriagatik edo ospitaleratzeagatik, gertaera eragileak irauten duen bitartean. Gaixotasun larriaren edo ospitaleratzearen kasuan, egun ez-jarraituetan hartuko bada, lanera joan ez den egun bakoitza justifikatu beharko da.

– Dokumentazioa berritzeko behar den denbora, lan-baimenak eta aldi baterako egoitzak ditzuten etorkinen kasuan. Baimen hori ez da ordainduko, eta, beraz, berreskuratu egin beharko da.

– Urtean 15 ordu emango dira, gehienez, 14 urtetik beherako seme-alabei edo adin horretatik gorako desgaituei (Eusko Jaurlaritzak edo Arabako Foru Aldundiak egiaztatutako desgaitasuna izan behar dute) Gizarte Segurantzako osasun-zentro publikoetako medikuaren kontsultara laguntzeko; edonola ere, lagun egiteko ezinbesteko denborarako baimena izango da; aldeztatik eskatu behar zaio enpresari, eta, ondoren, egiaztagiria aurkeztu behar da. Egiaztagiria horretan, hitzorduaren ordua eta kontsultatik irteteko ordua zehaztu beharko dira. Betiere kontsulta langilearen lanaldiaren barruan baldin bada eta, adingabe edo desgaituarekin bizi den beste ahaideren batek ezin duelako joan, langilea bera joatea beharrezkoa bada emango da baimena.

15. Laneko arropa eta norbera babesteko ekipoa

Enpresak beharrezko baliabideak emango dizkio langileari, zehazki; laneko arropa –udako joko bat (apirila) eta neguko beste bat (iraila)–, botak, eskularruak eta norbera babesteko ekipoa, beharrezkoak direnean, hondatutakoak enpresari entregatu ondoren.

16. Gatazkak ebazteko prozedura

Gatazkak konpontzeko bide naturala elkarrizketa izango dela erabaki dute alderdi sinatzaileek, eta hitzarmen kolektibo honen interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren zalantza, eztabaida, eta galdera guztiak langileen eta zuzendaritzaren artean aztertzeko konpromisoa hartu dute, erabil lezaketen beste edozein administrazio-bide edo jurisdikzio-bide hartu aurretik. Halaber, ebatzi gabeko desadostasunei dagokienez, alderdiek PRECO n aurreikusitako

mekanismoetara jo ahal izango dute, hiru modalitateetan, Euskal Autonomia Erkidegoko gatazka kolektiboak konpontzeko: adiskidetzea, bitartekaritza eta arbitrajea.

Edonola ere, arbitrajea erabili ahal izateko, alderdi biek ados egon beharko dute, eta alderdietako batek ezin izango du alde bakarreko eskaera egin.

17. Legeria osagarria

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek adostu dute akordio honetan berariaz arautu ez diren gainerako gaiak une bakoitzean indarrean dagoen Errepideko salgaien garraioaren industriaren eta Arabako garraio agentzietarako sektorearentzako hitzarmen kolektiboan xedatutakoaren arabera arautuko direla, berariaz eta eskusiboki.

18. Ezusteko hutsuneak estaltzea

Bezeroarekin itundutako zerbitzua ematen dela bermatzeko, araua honako hau izango da: irteten den txandako langileak ez duela lanpostua utziko, harik eta sartzen den langileak lanpostua hartu arte.

Txandakatu gabeko langilea bere lanpostuan egongo da ahal duen guztietan, harik eta ustekabeko hutsuneen ondorioz enpresak aurkitu duen beste langile batek betetzen duen arte. Lanpostua uzten duen txandako langilea gehienez 2 orduz egon ahal izango da lanpostuan. Langileren batek betebeharrak hori betetzen ez badu eta bere lanpostua bi ordu baino lehen uzten badu nagusiaren baimenik gabe, lanaldia ez betetzat hartuko da (lehen falta arina izango da, bigarrena falta astuna eta hirugarrena falta oso astuna, Arabako garraioko hitzarmenean eta Estatuko garraioko 2. esparru-akordioan jasotakoaren arabera).

Lanaldia luzatzen duten orduak apartekotzat hartuko dira. Langileak nahitaezko betebeharrak pertsonal eta presakoren bat egin behar badu, bi ordu horiek egitetik libre geratuko da. Edonola ere, egoera hori agiri bidez justifikatu beharko du.

Emandako lanaldia apartekotzat hartuko da, une bakoitzean ezarritako balioaren arabera.

19. Osasuna zaintzea

Azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 22. artikulua betez (bertan jasotzen baita enpresaburuak bere zerbitzura dauden langileei bermatuko diela beren osasun-egoeraren aldizkako zaintza, beren lanari datzekion arriskuen arabera), erabaki da azterketa medikoak espezifikokoak izatea lanpostu bakoitzean sortutako arriskuen arabera.

Horretarako, prebentzio-zerbitzuak urtero emango die prebentzio-ordezkariei jarraitu beharreko osasun-protokoloaren berri, eta azterketa medikoak egin ondoren, honako hauek jakinaraziko dizkie:

- azterketa medikoen emaitzak, gaitasunari dagokionez.
- prebentzio-neurrien beharra.
- emaitza kolektiboaren ebaluazioa.

Azterketa medikoak lanorduetatik kanpo egiten direnez, 40 euro gordinekin konpentsatuko dira.

1. eranskina: 2023., 2024., 2025. eta 2026. urteetako soldata-etaulak

2023					
KATEGORIA	HILEKO OINARRIZKO SOLDATA	ETEKIN-PLUSA, HILEAN	UZTAIL ETA ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIAK	URTEKO SOLDATA GORDINA	SEGURTASUN-PLUSA, HILEAN
Langile espezializatua	1.094,68 €	369,79 €	1.469,79 €	21.982,94 €	4,58 €

2024					
KATEGORIA	HILEKO OINARRIZKO SOLDATA	ETEKIN-PLUSA, HILEAN	UZTAIL ETA ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIAK	URTEKO SOLDATA GORDINA	SEGURTASUN-PLUSA, HILEAN
Langile espezializatua	1.138,46 €	384,58 €	1.528,58 €	22.862,26 €	4,76 €

2025					
KATEGORIA	HILEKO OINARRIZKO SOLDATA	ETEKIN-PLUSA, HILEAN	UZTAIL ETA ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIAK	URTEKO SOLDATA GORDINA	SEGURTASUN-PLUSA, HILEAN
Langile espezializatua	1.172,62 €	396,12 €	1.574,44 €	23.548,13 €	4,91 €

2026					
KATEGORIA	HILEKO OINARRIZKO SOLDATA	ETEKIN-PLUSA, HILEAN	UZTAIL ETA ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIAK	URTEKO SOLDATA GORDINA	SEGURTASUN-PLUSA, HILEAN
Langile espezializatua	1.201,93 €	406,02 €	1.613,80 €	24.136,83 €	5,03 €